

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Ordaindutako oporrak guztientzat

EUSKAL HERRIKO MEATZARITZAREN MUSEOA



Bizkaiko burdin meatzetako langileak XIX. mendearen amaieran. Urte horietan hasi ziren Ingalaterrako industriako zenbait langile ordaindutako oporrak izaten. Hona beranduago iritsi ziren.

LONDRES, 1871. Parlemantuak Bank Holidays Act delakoa onartu zuen; horren arabera, bankuentzat lau jai egun ezarri ziren egutegian. Lanaldi luzeak murrizteko borrokan ari ziren sindikatuak lege berria baliatu zuten industriako langileentzat ere opor egun horiek eskatzeko. Hitzarmen kolektibo jakinetan eskaera onartu zen, eta, hala, 1872an zenbait fabrikatoko langileek opor ordainduak izan zituzten lehenengoz, lau egun solte besterik izan ez baziren ere.

Hurrengo urtean, errege dekretu baten bidez, Alemaniako funtzionarioek lortu zuten opor ordainduak izateko eskubidea. 1900ean Parisko metroko langileei ordaindu zizkieten oporrak eta, 1907an, Frantziako meatzariei. XX. mende hasieran aurrerapen handiak egin ziren zentzu honetan, batez ere Europa erdialdeko herrialdeetan. Baina eskubidea zenbait kargu, enpresa edo sektoretara mugatuta zegoen, eta horrek, finean, langileen arteko desberdintasunak areagotu egin zituen.

Herrialde osoko langile guztiei eragiten zien oporrei buruzko lehen legedi orokorra Islandian onartu zuten 1909an. Urtebete geroago Austria-Hungariak bi aste gutxi-

neko oporraldi ordaindua ezarri zuen. 1920an, Nazioarteko Lan Bulegoak Langileen Astialdiari buruzko Nazioarteko I.JHK,G Kongresua antolatu zuen. Eta handik aurrera, oporrei buruzko lege orokorrak errenkan etorri ziren: 1922an SESBn, 1927an Italian...

Espainiako Errepublikako 1931ko Konstituzioak astebeteko opor ordainduak izateko eskubidea jaso zuen 46. artikuluan. Baina ez zegoen bermatuta hori praktikan beteko zenik, eungo konstituzioak etxebizitza eta lan eskubideak bermatzen ez dituen bezala. Frantziako gobernu ezkertiarrek 1936ko ekainean ezarri zuen eskubidea eta, praktikan, Espainian baino askoz ezarpen zabalagoa izan zuen.


Bigarren Mundu Gerra amaituta, 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak pertsona orok atsedererako, astialdiaz gozatzeko eta ordaindutako oporrak izateko eskubidea duela jaso zuen 24. artikuluan. Mendebaldeko herrialde gehienetan oporraldia lau aste ingurukoa da; Singapurren, esaterako, zazpi egunekoa besterik ez; baina herrialde askotara industrializazioa ez da iritsi, eta, beraz, opor ordainduak ere ez.

Arrastoak

Futbol araudirik zaharrena enkantean saldu dute

SHEFFIELD klub britainarra 1857an sortu zen eta, hala, munduko futbol elkarerik zaharrena da. Orain arte bere esku izan du gordetzen den futbol araudirik zaharrena, 1858ko eskuizkribua. Baina, kluba finantzatzeko, pieza Sotheby's enkantetxeari eman zion eta bertan saldu dute berriki, 900.000 liberaren truke. Dokumentu horrek futbol modernoaren hainbat arau ezarri zituen, esaterako, kornerra eta ateko langa, handik aurrera futboleko atak errugbiko ateetatik bereiziko zituen.

1859an, sortu eta urtebetera, araudia inprimatu zuten (argazkian), eta inprimaki horren faksimileak ere salgai ipini ditu klubak, orijinala baino askoz merkeago. Kopia www.sheffieldfc.com helbidean eros daitezke 9,90 libera ordainduta.



WWW.SHEFFIELDFC.COM